

MURRIZKETEN AURKAKO LANUZTEAK EAEko HAURRESKOLETAN

LAB eta STEE/EILAS sindikatuen prentsa oharra

Gaur, martxoak 22, **3 orduko lan uzteak egin ditugu Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 222 haurreskoletan, ezarri dizkiguten murrizketen aurka**; mobilizazioen baitan, elkarretaratzea egin dugu eguerdian **Eibarren**, Haurreskolak Partzuergoko egoitzaren aurrean; **700 hezitzaile inguru koncentratu** garen bitartean, beste 60 pertsonak kotxe karabana burutu dute goizeko 12.00etatik 13.00etara arte.

Haurreskolak Partzuergoa osatzen dugun langileok, bai kudeaketako langileak bai hezkuntza arlokoak, derrigortuta sentitzen gara gure egungo egoera publikoki azaltzera. Zerbitzu publiko hau pairatzen ari den etengabeko murrizketa sorta hau euskal jendarteari azaltzeko goieran sentitzen gara.

Egun **1.500 langile baino gehiago** gara, kudeaketa zein hezkuntza arloan. **2009. urtetik Haurreskolak Partzuergoa dirua aurrezten ari da langileon kontura. Aipatu urtean aurrekontuetan langileon soldatarako % 4 bideratua baldin bazegoen ere, langileoi %3ko igoera izan genuen eta gure kontura %1 aurreztu zuten. Gaur egun, 2010 urteko "ley de Modificacion de Presupuestos" delakoarekin gure soldaten jaitsiera are nabarmenagoa izan da. Langileon kontra aplikatutako neurri hori epaitegian salatu genuen sindikatuek eta epaileak arrazoia eman digu, beraz, ebazpen honek agerian utzi du Haurreskolak Partzuergoak eta Hezkuntza Sailak langileekiko izandako jarrera; orain langileoi kendutako dirua noiz itzuliko diguten argitu beharko lukete, baina, Haurreskolak Partzuergoak errekurtsioa aurrera eramatea erabaki du eta gainera, horrez gain, **2011. urterako soldata guztietan %2,45 jaitsiera aplikatuko digutela adierazi digute jada.****

Gastu publikoa murrizteko aitzakiarekin gure soldata zein lan baldintzen murrizketak irtenbide eraginkor bakarra direla argudiatzen digute. Gainera, lan legepeko langile guztiei (ikastolak, hezkuntza berezia, itunpeko ikastetxeak eta zerbitzuetako langileei) aplikatu zaien %0,8ko igoera guri ezeztatu egin digute.

Langileon soldatan eragiteaz gain, **neurri murriztaileek langileen lan baldintzetan zein haurren ongizate eta heziketa eskubidean eragin itzela dute.** Adibide gisa:

- **Ordezkapenak** egun batzuk beranduago betetzen dira edo **bete gabe** geratzen dira. Betetzekotan ordu kopurua txikiagoa da (lanaldi erdiak osoen ordez).
- Jardueren **prestakuntzarako denbora gutxiago**. Haurren segurtasuna arriskuan ez jartzeko
- Gelan haurrekin antolatutako **jarduerak egitea ezinezkoa** da hezitzaile bakar batekin.
- **Koordinazio** lanak egiteko **denbora gutxiago** dugu eta askotan, lan orduz kanpo egin behar ditugu. Gero ordu horiek ezin ditugu berreskuratu, haurreskolaren funtzionamendua ez oztopatzeko.
- Bazkalorduetan hezitzaile gutxiago daude haur kopuru berdinari jaten emateko eta jantokia eta umeen janaria prestatzeko. Egunero **gurasoekiko hartu-emanak laburragoak** izan behar dira nahita nahiez. Horregatik ere, jantokietarako ratioak ezartzea eskatzen dugu, jatorduetako baldintza egoki batzuk bermatzeko.
- Kudeaketako langileei ez zaie ordezkorik ipintzen. Langile kopurua hasierako berdina da eta gero eta lan karga handiagoa dute, haurreskola gehiago irekitzen diren heinean bere funtzioak ere gehitzen doaz.
- Hezitzaile bakar bateko haur-eskola txikietan kopurua asko handitu da eta herri txikietako hezkuntza zerbitzua zein bertan dagoen langileengan eragin zuzena izanez.

Laburbilduz, murrizketa hauek **haurreskoletako antolaketa eta funtzionamendua kaskartu** egiten dute eta gure jarduera pedagogikoa erraztu beharrean, zailtzen eta aurrera eramateko giza baliabide gutxiagorekin aurrera atera behar ditugu, langileongan lana oztopatuz.. Familiek kuota berdinak ordaintzen jarraitzen dute, ordea ematen zaien zerbitzua ez da kalitatekoa.

Egoera larri honen aurrean **LAB eta STEE-EILAS** sindikatuok, **Haurreskolak Partzuergoan % 85 baino gehiagoko ordezkaritza dugunok, zera adierazi nahi dugu: ez dugula inolako murrizketarik onartuko ez langileen lan baldintzetan ez Haurreskolak eskaintzen duen zerbitzuetan.** Kalitateko zerbitzu baten aldekoak gara, etapa honek daukan berezitasunegatik hezigarria da eta gainontzeko etapetan bezala, ume guztiek heziketa jasotzeko eskubidea berezkoa dutela uste dugu.

Eibarren, 2011ko martxoaren 22an

LAB-STEE/EILAS